



TERAPIA FOTODINAMIKOA EGUNEKO ARGIAREKIN

Zer da?

Terapia fotodinamikoa eguneko argiarekin (TFD-LD) ketarosi aktinikoetan, Bowen-en gaixotasunean eta gainazaleko epitelio basozelularrean erabiltzen den tratamendua da. Batzuetan, medikuak tratamendu hau aginduko du aipatu ez diren beste patologia batzuetan.

Zelula anormalak suntsitzean datza, egitura osasuntsuak babestuz. Horretarako, fotosentsibilizatzaile bat aplikatzen da eta argi ikusgai baten eraginpean egon behar da pazienteak.

Nola egiten da?

Hasteko eguzki fotobabesgarri bat ematen zaio. Ondoren, metil aminolebulinatoko (Metvix) krema zabaltzen da tratatu beharreko eremuan. Aplikatu eta 30 minutura, zu 2 orduz jarriko zara eguneko argiaren eraginpean.

Eguzki fotobabesgarria eta metil aminolebulinatoko krema kontsultan aplikatuko dira.

Kontsultan krema eman eta hurrengo 30 minututan, leku itxi batean egon ahal zara edo garraiobideren batean mugitu.

Eguneko argiaren eraginpean egon behar duzun bi ordu horietan, kaletik paseatzen edo banku batean eserita egon ahal zara. Ez da beharrezkoak eguzkiaren eraginpean egotea zuzenean, eguzkiaren eta itzalaren artean egon ahal zara.

Eraginpean 2 orduz egon ondoren, tratatutako eremua ur eta xaboiarekin garbitu behar duzu tratamenduko krema kentzeko. Nahi den efektua baino gehiago ez eragiteko, eguzkitik babestu beharko zara hurrengo 48 orduan txapel eta eguzki autobabesgarri batekin

Ondoko zainketak:

Ziurrenik tratamenduak hauek sortuko ditu: eremua gorritzea, handitzea eta baita babak eta zarakarrak ere. Garrantzitsua da egunero eremua ur eta xaboiarekin garbitzea ez gaininfektatzeko. Lehortu toalla batekin igurtzi gabe. Pomada antibiotiko bat (Fucidine®, Bactroban®) aplika dezakezu egunean 2 aldiz zarakarrak erori arte.

Mina izanez gero, 500 mg-ko edo 1 g-ko parasetamola har dezakezu 8 orduro.